2. mailako Hirigintza: sarrera

IBILBIDEKIN ERLAZIONATUTAKO HIRI-PROIEKTUAK

7. ariketa

Hiru plano A-1 landuko ditu talde bakoitzak, aurreko ariketako herri berdina aztertuz:

Oharra: Eskoriatza-Aretxabaleta dituztenek Aretxabaleta soilik azter dezatela.

Ibilbide bakoitzeko espazio publiko esanguratsu bat hautatuko da (kale, plaza, lorategi edo beste), haren inguruan hiri-proiektu bat garatuz. Espazio publiko horiek trinkoak zein zatituak izan daitezke. Talde bakoitzak, beraz, hiru hiri-proiektu proposatuko ditu (haien artean ere nahasi daitezkeela):

1.- Kultura-ibilbidearekin erlazionatutako hiri-proiektua: Honako eraikuntzak antolatuko dira espazio publiko bat osatuz:

- Anfiteatro estaligabea (harmailak), ikuskizun ezberdinak garatzeko (kontzertuak, teatroa…).
- Aldi baterako erakusketa-pabiloia.
- Turismo-informazioko kioskoa.
- Erabilera anitzetarako esparrua (jaietako txosnetarako, azokak garatzeko…).

2.- Kirol-ibilbidearekin erlazionatutako hiri-proiektua: Honako eraikuntzak antolatuko dira espazio publiko bat osatuz:

- Frontoi estaligabea.
- Skateboard *halfpipe* pista (edo beste motatakoa).
- Eskalada egiteko horma.

3.- Ibilbide geldoarekin erlazionatutako hiri-proiektua: Honako eraikuntzak antolatuko dira espazio publiko bat osatuz:

- Parke lineala.
- Kafetegia.
- Komun publikoak.
- Umeentzako jolastokia.

Eskala librea da (proiektuak azaltzeko beharrezkoa dena; ez ahaztu kokapen-planoa). Planoak paperean **eta** PDF formatuan emango dira (CD batetan, 300 d.p.i. kalitatearekin, ondo orientatuak eta izenburu adierazkorrekin, adibidez: "2. Bergarako kirol-ibilbidearekin erlazionatutako hiri-proiektua.pdf"; CDaren azalean taldearen izenak, herria eta irakaslearen izena errotulatuko dira; PDF edo plano bakoitzaren gehienezko pisua 10 megakoa izango da). Adierazi plano guztietan iparra, eskala grafikoa eta taldekideen izenak.

Ariketak **urtarrilaren 13**ko eskola hasieran emango dira. Egun berean, talde bakoitzak **10 minutu**ko aurkezpen publikoa egingo du, proiektuaren ezaugarri nagusiak azalduz (ekarri aurkezpenerako formato erabilgarri bat, CD edo USB batean: Power Point, ACDSee, jpg, tiff…)

Donostian, 2008ko abenduaren 16an

Irakasleak: Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño